URTE BERRI EGUNA.

Pensamentu triste eta aundi bat da kristauaren bizitza guzia beti mendean daukana. ¡Betikotasuna! Orrek lana eragiten dio, ori da bere egiteko guzietan begien aurrean daukana. ¡Betikotasuna! Onekin guzia adierazten da, guzia ezagutzen da; Alpesetako S. Bernardoko mendi gañean elurretan galduta dabiltzan gizonen billa bere bizitza arriskatzen duen fraidearen sakrifizio gaindikakoa; eta iltzen dagoenaren oe ondoan egoten dan S. Bizente Paulakoaren alabaren karidadea; pobrearen pazienzia eta mendetasuna, eta aberatsaren umilltasuna, ala aurreneko denboretako martirioak, nola gure egunetako fraide trapensearen bizitza latz eta nekosua. Pensamentu onekin oraingo bizitza etzaigu iruditzen iseka pisu eta samiñ bat; ezpada bizitza obeago baterako pauso bat, eremu leor gisako bat, gure etzauntza paratzen deguna. Baña gure atzeneko patuaren pensamentu onek gure anima asaldatu eta menderatzen gaituen denbora guzien artean geien geienekoa guretzat da denbora batetik bestera, joandako urtetik urrengo urtera igarotzekoa. Bidelariak mendimuño batetik pasatako bideari aurrena, eta gero oraindik igarotzeko daukanari begiratzen dion bezela; ala gizonak ematen dio begirada bat denbora igaroari, eta gero bestea etorkizun dagoenari. Chit laister oroipen bat baizik izango ez dan urte au, iruditzen zayo besteari darraizkan poz eta oñazeakin, bildur eta esperanzakin, utsune eta birtuteakin. Añ denbora laburrean ¡zenbat sentimentu miñkaistuak! ¡zenbat esperanza aize biurtuak! izenbat egun illun goibelak! Achi achika dijoazen orduak eraman dituzte arrastaka, ujolak bezela, biotzak maitatzen zituen amets gozo aek, eta zoriontasuna erori da tantoka, lore belaskatua kopeta koroatutik ostoka ostoka erortzen dan moduan. Alperrik ordea guzia desagertu da: Erlijioa, esperanzaz beterikako bere ujua adieraziaz, alchatzen da denbora pasatuko

lantu triste oek baño gorago, Eta gogoraeraziaz gizonari bere patu zerukoia, isurtzen dio animan balsamu konsolagarria. Munduan, mingañak urte on bat opa, eta biotzak barrunbean gezurtatzera guzia biurtzen dan bitartean, erlijioak presentatzen digu gure adorazio eta menekioak eman dizaizkagun, Jaungoiko bat gizon egiña gu salbatzeko.

«Aurra zirkunzidatua izateko zortzi egunak bete ziranean, jarri zitzayon izena, Jesús, Amaren errayetan sortua izan zan baño lenago Aingeruak eman ziona». (S. Lukas).

Jesus izenak esan nai du Salbatzallea. ¡Katolikoak! atozte bada belaunikatzera Jainko Aurraren seaska aurrean, urteari asiera emateko esperanza gozoaren alaitasunarekin. Aste bat da, aren jayotzan lurra ikaratu zala, gaur bere izena artu, eta bere eginbidea adierazten du. Bukatu dan urte onetan atsekabea sentitu dezute zuen biotzetan; zoazte bada orain Jesukristoren onako itz au aditzera: zuek salbatzera nator, eta itzuliko zerate konsolatuak. Ur santua zuen buru gañean isuritzen danean, artzen dezute salbazioko batayoa; lenbiziko esperanzako sakramentua; Erlijioak oroituarazten dizkitzute pensamentu konsolagarri oek, eta gure bizitzaren urte bakoitzari esperanzak ematen dio asiera. Eta ¿zér da salbaziozko agindu ori, Eleizak ematen dizuten *berri on ori?* Ori da gure arteko bakoitzari, eta munduari zuzentzen zayona. Zuentzat da argi batzuen pauso guziak giatuko dituena, bizitzako penetan irozoko zaituzten eutsgaya, zuen malkoak leortuko dituen konsueloa, damutasunean dagoen barkazioa, gizonaren aunditasuna, bere animaren beti bizitzea, justuaren garaipena. Munduarentzat, da elkartasunezko lege berri bat, biziera biguñ berri bat, mundu berri bat zarrez desegiñtzen dijoan anziñako munduaren ordez, da libertadearen garaipena legeetan, edertasunaren donekida arteetan, itz batean esateko, giza izate guzia berritua, ala gizon bakoitzagannola guziengan.

Emezortzi eunki da munduko baztercho batean esan zala itz au: *zuek salbatzera nator,* eta aldatu zuen munduaren ichura guzia, eta urteoro berritzen da salbaziozko agindu au, gure biotza desalaitu ez dedin mundu deserri triste onetan. Orretarako dira Eleizako zeremonia, eta gure Erlijioko festa guziak. Agertzean gaur guri Jainkoaren Semea zirkunzisioa sufritzen beste edozein israeldar bezela, Erlijioak ematen digu umilltasunezko ikasbide aundi eta errespetagarri bat, beñere illko ez geralako promesakin batean gure izatearen aunditasuna alchatzen duena. Alaše da gizona, chikia eta aundia denbora berean,

ukitzen du zerua eta lurra, arkitzen da Jaungoikoaren madarikazioen pean eta Jesukristoren odolarekin estalia, errebelatua eta santutua, madarikazioa eta gloria. ¡Katolikoak! poztu gaitezen bada Eleizarekin, eta agur egin dezayogun alegere Jesusen izen orri, zeñaren aurrean S. Paulok dion bezela, *guzia belaunikatzen da zeruan, lurrean eta infernuetan.* Jesusen izenaren festa da Jainkoaren festa, gizonarena eta munduarena. Gaur isten da urte bat joan danetik berezitzen gaituena, ¿zenbat denboran? Iñork eztaki. Añ presaka irristatzen diran urte oen artetik gizona dijoa aurrera beti kezkaz eta penatzen, ayenatzen duela gaur, atzo maitatzen zuena, billatu gabe beñere bere biotza kontentatu dezakean gauzarik, eta zorionez ase dezakeanik. Baña bizitza deritzan miseria aundi onetatik aruntzago, emengo ibillera laburraren mugan dago zerua, eta an bertan arkituko degu pakea, sosegua eta kabugabeko zoriontasuna.

MANUEL A. ANTÍA-KOAK
euskerara itzulia.

(Egillea Antonio Aparisi ta Guijarro.)